

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostua betetzea, zehazki Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua

Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera, Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile azpieskalari dagokion lanpostu hori estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dago.

Lanpostu hori bete gabe dago, gaur egun.

Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan eta 92. bis artikuluan eta udal hau arautzen duten estatutueta 2.3 artikuluan xedatutakoa, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bost egun balioduneko epea ematea, Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile plaza betetze aldera eskaerak aurkezteko. Lanpostu hori Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49. artikulutik 51. artikulura xedatutako legezko zernahi eratan bete ahal izango da.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da. Izangai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean foru aldundien onetsitako azken merezimendu lehiaketa arruntean gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidaliko da: ayto.tag@laguardiaparticipa.eus.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna duela esleituta eta derrigortasun data iraungia duela, 2021eko urriaren 1eko dataz. Lanaldi osoa izango du.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 53. artikulura xedatutako prozedurak.

Laugarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea.

Guardia, 2021eko azaroaren 16a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO

ERANSKINA

" jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:, udalerría:; telefonoa:), estatutako gaikuntza duen funtzionarioak, azpieskalakoak, eta egun toki erakundean lanpostua betetzen duenak, hau

Adierazten dut

Jakin dut Guardiako Udaleko idazkaritza-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta behin-behineko izendapenez betetzeko aukera dagoela. Betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzailetza lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten ditut:

NANaren fotokopia.

Estatutako gaikuntzako funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.

....., 2021ekoaren(a)

Izenpea